# Bestelako Xedapenak

**KULTURA SAILA**

**4937**

EBAZPENA, 2010eko urriaren 5ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, ikus-entzunezko edukiak euskarri berrietan sortzeko eta ekoizteko laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duen Kulturako sailburuaren 2010ko irailaren 10eko Aginduan finkatzen den gehienezko zenbateko orokorra aldatzen duena.

AURREKARIAK

1.– Kulturako sailburuaren 2010eko irailaren 10eko Aginduak, ikus-entzunezko edukiak euskarri berrietan sortzeko eta ekoizteko laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duenak, bere 3.1 artikuluan dirulaguntza horien zenbateko orokorra berrogeita hamar mila eurotan (50.000) finkatu zuen.

2.– Aipaturiko aginduaren lehenengo xedapen gehigarrian honako aukera hau aurreikusten zen:

«3. artikuluan jaso den guztirako zenbatekoa handitu egin ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbateko kontuan harturik, Kultura Sailean beste programa batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa dirulaguntzak ebatzi baino lehen egin behar da. Hala eginez gero, horren berri eman beharko da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez».

3.– 2010eko irailaren 30ean Kultura Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren arteko lankidetza-hitzarmen bat sinatu zen, gaztelania ez beste hizkuntza ofizial batean sortutako industria zinematografiko eta ikus-entzunezkoaren ekoizpena, banaketa eta sustapena bultzatzeko. Hitzarmenaren bitartez, Zinemagintzari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legean helburu horrekin ezarritako diru-funtsari aplikagarriak zaizkion baldintza eta konpromisoak ezartzeko kolaborazioa bideratu zen. Izan ere, 55/2007 Lege horren 36. artikuluak dioenez, industria zinematografikoan eta ikus-entzunezkoetan gaztelania ez beste hizkuntza ofizialak sustatu eta babesteari begira, eta Espainiako pluraltasun kulturala eta ikus-entzunezkoen adierazpenari eta zabalkundeari dagokionez lurralde bakoitzeko hizkuntza berezkoen aukera-berdintasuna bultzatze aldera, laguntza edo kreditu berezien funts bat sortuko da, autonomia erkidegoetako organo eskudunetara eskualdatuko dena, beraiek haien eskumenen arabera kudea ditzaten.

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**4937**

RESOLUCIÓN de 5 de octubre de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se modifica el importe global máximo destinado en la Orden de 10 de septiembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se regula y convoca la concesión de ayudas para la creación y producción de contenidos audiovisuales en nuevos soportes.

ANTECEDENTES

1.– La Orden de 10 de septiembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se regula y convoca la concesión de ayudas para la creación y producción de contenidos audiovisuales en nuevos soportes, en su artículo 3.1 fijaba la dotación total de dichas ayudas en la cantidad de cincuenta mil (50.000) euros.

2.– En la Disposición Adicional primera de la citada Orden se preveía la siguiente posibilidad:

«El importe global consignado en el artículo 3 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Cultura, y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes».

3.– Con fecha 30 de septiembre de 2010 se firmó el convenio de colaboración entre el Ministerio de Cultura y el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco para fomentar la producción, distribución y promoción de de la industria cinematográfica y audiovisual en lengua cooficial distinta al castellano. Mediante el citado convenio se canaliza la colaboración entre ambas instituciones para establecer las condiciones y compromisos aplicables al fondo establecido para tal fin en la Ley 55/2007, de 28 de diciembre, del Cine, que prevé en su artículo 36 que, con el fin de atender al fomento y protección del uso de las lenguas cooficiales distintas a la castellana en la cinematografía y el audiovisual, promoviendo la pluralidad cultural de España y la igualdad de oportunidades de las lenguas propias de cada territorio en materia de expresión y difusión audiovisual, se establecerá un fondo de ayudas o créditos específicos que serán transferidos en su integridad a los organismos competentes de las Comunidades Autónomas, que los gestionarán conforme a sus competencias.

4.– Une honetan, diru-laguntzen deia egiten duen Aginduaren Xedapen Gehigarrian aurreikusten den moduan, aurrekontu-disponibilitatea dago, hitzarmenean sorburua duena.

Ondorioz, hauxe,

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Ikus-entzunezko edukiak euskarri berrietan sortzeko eta ekoizteko laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duen Kulturako sailburuaren 2010eko irailaren 10eko Aginduan finkatzen den gehienezko zenbatekoa 12.000 euro gehitzea. Gehikuntza hori jatorrizko bertsioa euskaraz duten proiektuetara bideratuko da oso-osorik.

Beraz, aipaturiko Aginduaren 3.1 artikuluan aurreikusitako diru-kopurua hirurogei eta bi mila (62.000) eurotan finkatzen da.

***Bigarrena***.– Ebazpen hau EHAA-n argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kulturako sailburuari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean.

***Bigarrena***.– Ebazpen honek hartzen denetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 5a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

4.– Dado que existe en este momento disponibilidad presupuestaria, derivada del citado convenio, en los términos previstos en la Disposición Adicional de la Orden de convocatoria de las ayudas.

Por todo ello,

RESUELVO:

***Primero***.– Incrementar en 12.000 euros el importe global máximo destinado en la Orden de 10 de septiembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se regula y convoca la concesión de ayudas para la creación y producción de contenidos audiovisuales en nuevos soportes. Dicho incremento irá en su totalidad a los proyectos cuya versión original sea en euskera.

Por tanto, la cantidad global máxima prevista en el artículo 3.1 de la Orden de convocatoria para la creación y producción de contenidos audiovisuales en nuevos soportes queda fijada en sesenta y dos mil (62.000) euros.

***Segundo***.– Publicar la presente Resolución en el BOPV.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV ante la Consejera de Cultura.

***Segunda***.– La presente Resolución surtirá efectos desde su adopción.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de octubre de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.